

«Emakume batzuen izenak ezagun samarrak dira, baina euren ekarpenak, erabat ezezagunak»

Elena Ciordia eta Cira Crespo Marrazkilaria eta historialaria. 'Baginen. Euskal Herriko historia emakumeen bitartez' dibulgazio-lan ilustratua argitaratu dute

IRAITZ URKULO

Liburuaren sortzaileek ale bat erakusten dute.



Baginen. Euskal Herriko historia emakumeen bitartez' (Txalaparta, 2020) liburu berezia eta bakarra da. Izan ere, gure herriaren historia leku, garai eta bizi-egoera arras ezberdinetako emakume multzo zabal baten bizipenetatik abiatuta kontatzen duen lehen obra da.

Historian doktorea den Cira Crespok (Bartzelona, 1980), dokumentazio-lan sendoaz gain, ahalegin handia egin du atal bakoitzean formatu, estilo eta hizkera ezberdinak erabiltzeko. Horrela, irakurgai entretenigarria ondu du, dibulgazio-lanetan ohikoa den tonu astun eta grisetik ihesi. Elena Ciordia marrazkilaria (Ortuella, 1964) zor dizkiogu, bestalde, testuak laguntzen dituzten emakumeen akuarelazko erretratu eder koloretsuak, ikerketan zorrotzaren emaitza horiek ere.

– **Nola bururatu zitzaizun Euskal Herriko historia emakumeen bitartez azaltzea?**

– Elena Ciordia: Bat-batean, emakumei buruzko liburuak agertzen hasi ziren. Nire iritzian, halako liburuak oso inportanteak dira historiaren ilunpean geratu diren hainbat eta hainbat emakume berreskuratzeko, gure kultura berreraikitzen laguntzeko. 'Baginen. Euskal Herriko historia emakumeen bitartez' honen moduko liburu bat bilatzen ibili nintzen, baina ez nuen topatu. Ez zen existitzen eta, nire ustez, horren beharra zegoen. Beraz, Txalaparta argitaletxera jo nuen marrazki batzuekin eta emakume zerrenda batekin, eta haiek Cira Cresporekin harremanetan jarri ninduten. Ideia ona zela ikusita, proiektua martxan jarri genuen.

– **Historia ofizialari begiratu gero, oso bakanak dira arloren batean nabarmendu diren emakumeak.**

– Cira Crespo: Bai, eta, gainera,

ezagun zaizkigunak nola ezagutzen ditugun ere ikustekoa da, ezta? Zeren eta badira kaleak emakume izenarekin, eta literatura-sariak ere bai, baina gero, idazleen kasuan adibidez, liburutegietara emakume horietakoren baten liburu bila bazoaz, ez duzu ezer aurkituko. Izenak izan daitezke ezagun samarrak eta, aldi berean, beraien egintzak eta ekarpenak, erabat ezezagunak. Hori ere nabarmendu nahi izan dugu liburuan.

– **Dokumentazio-lan handia egingo zenuen, ezta? Zer iturritara jo duzu?**

– C.C.: Nire kasuan atal bakoitzak lan modu jakin bat eskatu dit, eta oso iturri ezberdinetara jo behar izan dut. Zenbaitetan artxibategietara edo hemeroteca zaharretara zuzenean, eta beste batzuetan artikulu akademikoetara. Zeren eta, egiari zor, unibertsitatean lan asko egiten ari dira, baina, tamalez, haien ekarpenak nekez gizarteratzen dira. Nire asmo nagusietako bat hori izan da, hain zuzen: historiaren arloan egindako lana jendeari hurbiltzea.

Protagonistak

– **Zer irizpide erabili dituzue emakumeen aukeraketa egiteko?**

– E.C.: Euskal Herri osoko emakumeak ordezkatuta sentitzea nahi izan dugu aukeraketarekin, ez hainbeste liburuko pertsonaiak eredutzat hartzeko, ideiak eta adibideak topatzeko baizik.

– **Atal batzuek, emakume bakar baten orde, kolektibo oso bat dute protagonista.**

– E.C.: Bai, eta, gainera, batzuetan izenak taldean aurkezteak edo taldea bera aurkezteak, nire ustez, izen bakarra bere horretan aurkezteak baino zentzu handiagoa dauka, hainbat aldarrikapen egiteko balio izan baitigu.

– **Garrantzitsua zen deskribatu-**

tako emakumeak iruditan gorputzea, ezta?

– C.C.: Imajinario berri bat sortzeko proposamena aipatzen dugu liburuan, eta imajinario berri bat sortzeko, jakina denez, irudi batak hamaika hitzek adina edo gehiago balio du. Alde horretatik, oso garrantzitsua eta benetan bikaina izan da Elena Cioridiaren lana.

– **Zergatik aukeratu duzu akuarelaren teknika?**

«Asmo nagusia irakurleak emakumezko pertsonaiengandik eta, bide batez, haien garaitik hurbil sentiaraztea izan da»

– E.C.: Oso egokia zelako erregistro desberdinak irudikatzen. Gustura egiten dut lan akuarelekin. Kasu gehienetan akuarela erabili ditut, baina beste teknika batzuk ere ikus daitezke liburuan, collage modukoak, esaterako. Gainera, kolore eta konposizioaren laguntzaz sentimenduak ere ager daitezke, irakurleei pertsonaiak hurbilago sentiarazteko.

– **Obrako protagonistak marrazteko orduan, eredurik izan duzu?**

– E.C.: Posible izan den guztietan, pertsonaien argazkiak bilatu ditut, oinarri erreala edukitzeko. Emakume jakin baten irudirik ez zegoen kasuetan, garaiko pintoeren koadroak edo eskulturak aztertut, beti pertsonaien mundua ahalik eta hoberen islatzeko. Zorionez, gaur egun informazio ugari daukagu eskura: museoen webguneak, hainbat blog, historia liburuak, garai guztietako artisten lanak, dokumentalak... Baliabide horiek guztiak erabili di-

tut nire lana hobetzeko.

Irakurgai entretenigarria

– **Bada modu berezian nabarmendu nahi izan duzun alderdirik?**

– C.C.: Erdiguneko elementua emakumeak eta haien bizipenak dira, baina haien mundua, bizi baldintzak eta sentimenduak ere paperean islatzen saiatu naiz. Emakumez gain, haien garaia eta bizipenak ere erabateko garrantzia daukate. Nire helburua liburu entretenigarri eta erakargarria sortzea izan da.

– **Ez du erraza izan behar emakume edo talde bakoitzaren ingurukoak soilik bi orrialdetan laburtzea.**

– C.C.: Bai, zaila izan da. Hala ere, nik laburtze lana maite dut; egia esan, barrenetik ateratzen zaizuna idaztea bezain garrantzitsua da gero sobera dagoena ezabatu eta muinarekin geratu arte esaldiak moztu eta berridaztea. Ez dakit ondo egin dudan, baina oso esperientzia interesgarria izan da niretzat.

– **Testuen tonua, hizkera eta estiloan aldatu egiten dira atal bategatik bestera.**

– C.C.: Bai, atal guztiak banaka landu ditut eta, horregatik, denak ezberdinak dira. Horrela, protagonista batzuek lehenengo pertsonan hitz egiten dute, beste batzuek elkarrizketa baten bidez aurkezten duten beren burua, eta beste batzuei buruzko testuak garaiko prentsa artikuluetan oinarritu ditut. Hala ere, atal guztietan saiatu naiz hurre-ratze emozional bat egiten; izan ere, asmo nagusia irakurleak emakumezko pertsonaiengandik eta, bide batez, haien garaitik hurbil sentiaraztea izan da.